

Elementuak, bost

Ik. Bost elementuak.

Eliza

1. Kristauak *otoitzerako, Jainkoaren hitza entzuteko eta *liturgia ospatzeko biltzen diren etxea edo tenplua da. Hainbat eratakoak izan daitezke elizak, horietako bakoitzeko burua zein den edota bertara zein kristau-elkarte biltzen den kontu: hala nola, *katedralea (edo apezpikuaren eliza), *parrokia, *kolegio-eliza, abatela, kometu-eliza, santutegi-eliza. Ik. Tenplua, 4.

2. Latinezko *ecclesia* hitzetik dator; hau, berriz, grezieratik, non batzarrea adierazten bait zuen. Bestalde, Itun Zaharreko Qahal hitza itzultzeko erabili zuten; Itun Berrian kristau-elkarteari egotzi aurretik, judaismoan Jainkoaren Herriaren *batzarrea adierazten zuen.

Jatorriz, beraz, kristau fededunen batzarrea adierazten du Elizak, eta hortik ditu gaurko bi adierak: Alde batetik, kristau-elkartea gurtza edo *elizkizunetarako biltzen deneko eraikin sakratua, eta, bestetik, kristau-elkartea bera. Ik. Elkartea.

Hasieran, judaismoko *sektatzat hartu zuen hainbatek kristauen taldea; baina laster, S. Pauloren eraginez batez ere, komunitate erlijiozko erabat berri gisa eratu zen. Hala ere, Elizari buruzko teologian, garrantzi handia eduki du *judaismoarekiko harremanak, eta Jainkoaren Herri berritatz hartzen du teologiak, S. Paulogandik, Elizaren teologo handi harengadik, hasita: horrela, Israel Jainkoaren Herriaren ondorengoa eta ordezkoa dela nabarmenduz.

Tokiko elkarteari, bereziki eukaristia ospatzera biltzen den batzarreari, deritza Eliza: *Diozesiari, *parrokiari, *oinarriko kristau-elkarteari, baita kristau-familiari ere (*ecclesiola*), bakoitzari era ezberdinez bada ere. Hortik igaro da kontzeptua, kristau fededun guztien elkartea eta erakundea adieraztera. Tartean, ordea, Eliza unibertsalaren edo munduzabalekoaren eta lekukoaren artean bestelako Eliza partikularrak adierazteko erabiltzen da: *Patriarkatza, *Eliza nazionalak edo etnikoak. Guztiei ematen die teologiak Eliza izena, ez Elizaren parte administratibo direlako bakarrik eta bai Eliza osoaren "lekuko" bereziki direlako ere. Elizaren kontzeptu mistikoagoari helduz, izen horren pean hartzen ditu teologiak ez kristau bizidunak bakarrik, eta bai hildakoak ere. Horrela hiru egoera edo bereizten ditu Elizaren salbamen-bidean: lurreko Eliza edo Eliza gudaria, sufrikariozko Eliza edo Eliza garbilaria, zeruko Eliza edo Eliza garailaria.

Lehen mendeetan ekialdean Eliza nazionalak sortu ziren, beren *errito- eta organizazio-autonomiarekin; mendealdean, berriz, askozak erdirakoiagoa izan da Elizaren eboluzioa Erromaren inguruan.

Eliztar bihurtzeko sarbide-errittoa baitaioa da; eta eukaristia hartuz, Eliz elkar-kide oso bihurtzen du fededuna. Eliza Katolikoan eta Ortodoxoan, bi sakramentu horiei *sendotza eransten zaie: hirurek osotzen dute kristau-sarbideko errittoa. Ik. Sarbida-pen-errittoa; Aldareko sakramentua.

Elizaren fedezko adierazpide oinarritzkoa *Apostoluen sinbolo delakoa da: sinboloa esaten da, sineskaiak formula labur batetara biltzen dituelako (*syn-bolos*). Elizaren *erlijiozikun nagusiak *sakramentuak dira, eta bereziki eukaristia edo *aldareko sakramentua, *gurtza osoaren erdigune gisa. Elizaren egitura, berriz, aski ezberdina agertzen da, Eliza batetik bestera. Erlijiozko erakunde soziala izateaz gainera, *misteriotzat aitortzen dute fededunek Eliza, eta ezaugarri mistiko hauen bidez adierazten: bat, santu, katoliko eta apostolutarra edo apostoluen dela aitortuz. Ik. Elizaren ezaugarriak.

Erromako inperioak eta Elizak, 313an Milanoko Edikturaren bitartez, bakeak egin zituztenetik X. menderarte, zortzi *kontzilio ekumeniko ospatu zituen Elizak, gaur ere kristau-Eliza gehien-gehienek halakotzat ezagutzen eta onartzen dituztenak, fedezkoak, gurtzazkoak eta Eliz ihardunbidezkoak erabakitzeke oinarritzat hartuz.

Kontzilio horien ondoren aldendu ziren Eliza monofisitak eta Eliza nestoriotarra, oraindik ere bizi direnak. Baina, lehen zatiketa --edo erdibiketa-- handia 1054eko *Ekialdeko zismakoan gertatu zen, *Eliza ekialdetar edo Ortodoxoa eta *Eliza mendebaldetarra edo Katolikoa banandu zirenean. Beste zatiketa handia Eliza mendebaldarrean XVI. mendean gertatu zen, *Erreforma protestantearekin. Orain, beraz, hiru adar nagusitan banandurik dago Kristoren Eliza; protestanteak, beren aldetik, beste zenbait Elizatan banandu dira, fedearen, gurtzaren eta egituraren aldetik ezberdinxeak. Badira, hiru adar nagusietatik aldendu diren talde txikiagoak ere. Ik. Nestorianismoa; Monofisismoa; Eliza Ortodoxoak; Protestantismoa.

Guztia horiei Eliza izena ematen diete, Kristoren *Elizaren ezaugarri gutxienekoak betetzen dituzten neurrian.

XIX. mendearen azkenaldean hasita, Elizaren artean *ekumenismoaren mugimendu indartsua sortu eta eratu da, guztiak elkarganatzeko eta Elizaren batasuna lortzeko.

Mugimendu horretan ez dira kristau-sektak sartzen, *Elizatzat hartzen ez dituzte-lako besteek.

Paulo Agirrebaltzategi

Eliz benefizioa

Sin.: Eliz onura

Erdi Aroan *monako bakoitzari otorduan zegokion janaria. Geroago, *kalonje bakoitzari zegokion ondasun-errentak.

Zuzenbide Kanonikoaren arabera, Eliz lanbide iraunkor eta instituzionaldua da: alde batetik, eginbide jakin batzu ezartzen ditu; eta bestetik, horiek betetzeko, sarre-ekonomiko jakinez horniturik dago, fondo-horniduraren mozkin gisa.

Sarritan Eliz ofizioa eta eliz benefizioa kontrajartzen dira: lehenarekin eginbi-deak adieraziz, eta bigarrenarekin, sarre-rak.

Benefiziodun edo onuraduna bere bizitza osorako egin ohi da benefizioaren jabe. Vatikanoko II. Kontzilioak benefizio-sistema baztertzeke edo aldatzeko joera agertu zuen.

Eliz degradazioa

Elizako prozesu juridikoa da, zeinaren bidez *klerikoa edo elizjendea betirako bere egoeratik beheratu egiten bait da, *laikoaren egoerara bihurtuz. Degradatuak ez du lehen zegokion jantzia eramaterik. *Deposizioa baino larriagoa da, hori ere barnean hartzen bait du degradazioak.

Ik. A divinis etenaldua.

Eliz jantziak

Ik. Jantzi sakratuak.

Eliz onura

Ik. Eliz benefizioa.

Eliz ospakizuna

Ik. Elizkizuna.

Eliz probintzia

Zenbait *diozesiren arteko batasun juridikoa da; beraietako bati nagusitasuna ematen zaio, artxidiozesi izenez, eta hemengo *artzapezpikuak --edo metropoliko apezpikuak-- nolabaiteko lehentasuna du beste apezpikuen gain, nahiz eta ez eduki benetako eskumenik horiekiko. E.H.ko Eliza hiru probintzian banaturik dago: Iruñekoa (Nafarroa, Gipuzkoa), Burgoskoa (Bizkaia, Araba), Akizekoa (Baiona).

Eliz zerbitzuak

Ik. Ministeritzak.

Eliz zuzenbidea

Ik. Zuzenbide kanonikoa.

Eliza abisiniarra

Ik. Eliza ethiopiarra.

Eliza anglikanoa

XVI. mendean Ingalaterran zabalduko erreforma erlijiozko-politikotik sortua, *Erromatar Eliza Katolikoarekiko *elkartasuna hautsiz. *Eliza nazional gisa eratu zen, erregea buru gorena zuela. Ingalaterrako erregearen menpeko oro da teorikoki Eliza anglikanoko kidea; *artzain anglikanoren baten eskuetatik *bataioa, *ezkontza eta *hiletak hartzeko eskubidea du.

Historian zehar bi korronte nagusi nabarmendu izan dira: *Goi(ko) Eliza eta *Behe(ko) Eliza.

Gaur, anglikanismoaren sinesbidea edo *kredoa eta erakundea onartzen duen eta komunio anglikanoaren barruan dagoen edozein eliz elkarteri deritza Eliza anglikanoa.

Ik. Komunio anglikanoa; Anglikanismoa.

Eliza armèniarra

Hirugarren mendean sortua, hasieran Kapadoziako Zesareako *metropolitaren menpe egon zen. 374ean lotura hori eten eta beregaineko bihurtu zen. VI. mendean hasieran Kaltzedoniako Kontzilioari uko eginik, monofisita bihurtu zen. Ik. Monofisismoa.

Firenze-ko Kontzilioan, ordea, Eliza armeniarrak ere esku-hartu zuen, eta Eliza Katolikoarekin batasuna egitea lortu zuten; baina ez zuen iraupenik izan batasun horrek. Armeniar patriarkatza katolikoa ere sortu zen, gorabehera horien ondorioz. 100.000 eliztar ditu horrek. Ez-katolikoak bi milioi t'endi inguru dira, lau *patriarkatzatan banatuta. *Errito berezia du, sinkretiko xamarra.

Eliza autozefaloak

Sin.: Eliza burujabeak

Garai batean --antzinako mendetan-- apezpikuei zegokien autozefalo titulua: ez *patriarkaren eta ez *metropolitaren menpe ez zirenei deitzen zieten horrela; edota zuzenean patriarkaren menpe, eta, beraz, metropolitarengandik aske zirenei.

Geroago eta gaur, berriz, Elizei dagokie autozefalo titulua. Ekialdeko *Eliza nazio-